

Ebazpena 2017ko urriaren 11koa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren zuzendariarena; AUDIT Batzordearen kide batzuk kargutik kentzea eta Batzordearen kide berriak izendatzea xedatzen duena, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ekainaren 28ko 13/2012 Legeari jarraiki.

Unibasq Agentziaren Estatutueta 19.6.b) artikuluan xedatutakoaren arabera (apirilaren 16ko 204/2013 Dekretuaren bidez onartutako estatutuak), Inhar González Gutiérrez jauna kargutik kentzea erabaki denez, 204/2013 Dekretuaren 13.5.e) artikuluan esleitu zaizkidan eskumenei jarraiki eta Euskadiko Unibertsitate Ikasleen Aholku batzordeak proposatuta,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Inhar González Gutiérrez jauna AUDIT Batzordeko kidea kargutik kentzea eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.- Euskadiko Unibertsitate Ikasleen Aholku batzordeak proposatuta Sergio López Pérez jauna AUDIT Batzordeko ikasle kide berria izendatzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek egun honetatik bertatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala badagokio, ebazpena ezagutzera emate aldera Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren web orrian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 11a.



EVA FERREIRA GARCÍA
Unibasq-eko zuzendaria